

IKSI HERRIA

Bazen behin Laura eta Amaia izeneko bi neska, Iksi izeneko herri txiki batean bizi zirenak.

Egun batean igel erraldoi bat etorri zen Iksira. Guzti-guztia apurtu zuen eta ia ia Laura jan zuen. Biztanle guztiak korrika joan ziren baina asko nekatzen ari ziren. Bat batean Laura eta Amaiak ibai bat ikusi zuten. Ibai horren ondoan hamar txalupa eta hiru flotagailu zeuden. Orduan handiak txalupetan joan ziren eta 3 umeak flotagailuetan. Bat-batean Irune izeneko neskato bat konturatu zen Laura eta Amaia falta zirela, orduan Anari esan zion:

-Ana-Ana, Laura eta Amaia falta direla.

-¿Benetan falta direla? eta zer egiten dugu orain, ezin dugu buelta eman.

Irune oso-oso jatorra zenez esan zuen:

-Bale, zuek ez kezkatu, ni joango naiz beraien bila eta flotagailu bat uzten badidazue hobeki.

Orduan Iruneri flotagailu bat eman zioten, eta Irune, Laura eta Amaiaren bila joan zen. Baina bitartean zer ari zen gertatzen han? Bueno Irune hara ailegatu zenean ez zegoen inor noski, Laura eta Amaia irtenbidea bilatzera joan zirelako. Orduan Irune, Laura eta Amaia bilatzera joan zen. Zelai batean aurkitu zituen. Orduan itsasontzira ekarri eta denak batera joan ziren.

Herri batera ailegatu ziren eta hor gelditu ziren bizitzen. Hortik aurrera oso ondo joan zitzairen guztiei bizitza. Katu bat eta lau txito, ipuina bukatu da eta kitto.

AGUUUUUUURRRRR!!!!

Egilea: Iradi